


Zigi 
Zaga



COR PUS

Bigarren zenbakia
2022ko negua

Zigi Zaga



AURKIBIDEA


- **EDITORIALA** Arantza Santesteban..... 4
- **POSTGIZAKIAREN GORPUTZA KONPOSATZEN** Blanca Pujals..... 7
- **GORPUTZAREN BIDEZ PENTSATZEN ANTZINAKO TXINAN** Albert Galvany..... 11
- **GORPUTZA, LITERATURAREN ERAIKUNTZA MATERIALA** Nerea Arruti..... 16
- **IRUDI HUTSAK AL GARA?** Iñigo Martinez Peña 19
- **LAGUNDUTAKO UGALKETAREN BIDEZ MUNDU IKUSKERA JAKIN BAT**
BIROSRTZEN ARI GARA Sara Lafuente..... 21
- **AHOA(K) BETE** Nahia eta Laura Galar..... 27
- **TRANS ESPERIENTZIATIK IDENTITATEAK BIRPENTSATZEN** Miquel Missé..... 30
- **LANA, KAPITALA** Jean-Luc Nancy..... 31
- **IDIOTER** Alma Söderberg 33



*Bihotza gauza zikina da akaso. Anatomyako taulei dagokie, harakinaren salmahaiari.
Nik nahiago dut zure gorputza.*

Marguerite Yourcenar

CORPUS



1992an Jean-Luc Nancy filosofoak *Corpus* liburua publikatu zuen Frantzian. Ahalegin nabarmena egin zuen gorputzari loturiko filosofiari lekua emateko, haren ontologiaz galdetzeko eta bide batez, utzi zuen idatzita humanoek ez *dugula* gorputz bat, gorputz *garela* baizik. Liburu horrek jarri zuen halako mugarri bat gorputzaren sakontze epistemikoan, gorputz-politikak, gorputz-ikasketak eta gorputz-ezagutzak leku garrantzitsua betetzen dutelarik gaur egun.

Gorputz bagara, haragi berri bati buruz hitz egin behar dela dio Nancyk. Hark dio *corpusak* grabitate hutsa direla eta hartara, erorketa prozesu etengabea dauden



haragi masak garela. Premisa horretatik abiatuz, erortzeko modu ezberdinei buruz galdegin diegu gure kolaboratzaileei oraingo honetan.

Antzinako Txinako filosofiarraino joan gara Albert Galvanyri eskua emanda, eta hala, Konfuzioren idatzietaraino egin dugu bidaia. Bada haren testuetan mendebaldeko ulermen arrazionaletik ihes egiten duen ikuspegi luze bat, arreta jartzen duena gorputzaren moduetan, keinuetan, bibrazioetan, oro har, haren izaera estetikoan. Gorputza ez baita soilik gure borondatearen bidez mugitzen den hezur-haragi masa bat, izan baditu bere berezkotasunak, keinuak, jasoerak eta hauek antzemateko sentikortasun bereziaz ari zaigu Galvany letrotan.

Non daude gorputzak? galdetu zuen Nancyk. *Lanean daude gorputzak, lanerako bidean, lanaren nekean.* Baina gorputzean bertan gertatzen dira mugimenduak zein trantsizioak, eta Miquel Misse soziologoari hartu diogu maileguan 2017ean Bartzelonako Beckett aretoan eman zuen hitzaldi paregabea. Irekitzen digu galdera sakon bat, zulo baten modura: gorputzaren aldaketa al da genero asignatutik desiratutako generora iristeko modu bakarra?

Laura Perez eta Nahia desira lodiaz aritu dira. Haien hitz eta irudietan agertzen dira gorputz masak eta gerrimamiak, eskuz hartuak, mingainez ukituak. Desira ez baita, ez luke behar, gorputz lirain eta gimnastikoetan soilik. *Eta hala ere, kendu egin zigutelako, gaur beldurrari aurre eginez dihardugu.* Ni-aren suntsiketaz ari zaigu Nere Arruti eta nola Barthesen teorietara joan-etorria eginez gorputzen duen bere idazkera Eider Rodriguezek *Eraikuntzarako materiala* nobelan.

Abailtzen diren gorputz horiek, etengabeen, graziaz edo martirioz, erortzen direnak. Alma Söderberg koreografo eta dantzariaren *Idioter* piezak, beste norabait bideratzen gaitu. Berrogei minutu luze irauten duen pieza honetan, Hendrik Willekensek lagunduta, gorputzak bere baitan duen sonoritateaz ari zaigu. Izan ere, izan daiteke gorputza bera koreografia bat lagundu dezakeen soinu banda.

Argia aldizkaritik ekarri dugu Sara Lafuenteren Miren Artetxek egindako elkarrizketa. Komodoko dragoien artean eta ugaztunak kenduta, animalia mota guztietan ematen den partenogenesitik tiraka, ugalketa mota ezberdinen ikerketan oinarritu da Lafuente. Ugalketa modu berrien eta merkatuaren logikaren arteko harremanaz ari zaigu.

Iñigo Martinez Peñak, *Imma* ekarri du lerrootara: ez da hezur-haragizko pertsona, hiru dimentsioko sorkuntza digitala baizik. *Imma* holografia deituriko teknikari esker sortzen den gorputz-presentzia bat da. Nancyren erorketaren teorian, gorputz hauek ez



dira zerutik erortzen, grabitatea ez dago haiengan, izatekotan, zabor birtuala dira, askoz gehiagorik ez.

Amaitzeko, postgizakiaren gorputzaren konpostatze prozesuaz aritu zaigu Blanca Pujals Goldsmiths-eko ikerlaria. *Postgizakiaz* hitz egin beharrean *humus konpostatuaz* hitz egitea proposatzen digu, Harawayen proposamenei men eginez. Hala, *gizakia* eta *ez-gizakia* bezala ulertzen ditugun kategoriak lausotu genitzake, Pujalsen arabera, banaketa hauek baitira gorputzen, organismo bizien eta lurraldeen esplotazioa ahalbidetu dutenak prozesu sostengatu, isil, asegaitz, estraktibista, zehatz, anker eta ahitu baten bidez.

ZIGiZAGako bigarren ale honetan, Antzinako Txinatik eta Konfuzioren teorietatik, holografikoki agertzen diren presentzietara zabaldu nahi izan dugu gure prisma. Gorputz *bagara*, konpostatua ala holografikoa, lodia ala trantsitatua, edonolakoa, espero dugu bigarren ale honekin ere guk gozatu dugun bezainbeste gozatzea.

Irakurketa on.

Arantza Santesteban



POSTGIZAKIAREN GORPUTZA KONPOSTATZEN

Blanca Pujals

Itzultzailea: Amaia Apalauza



Ekosistema bat honela deskribatzen da: entitate konplexu bat organismo guztiak eta haiekin interakzioan dagoen ingurune fisikoa biltzen dituen. Organismo horiek interdependenteak dira, bai elkarren artean, bai partekatzen duten habitatarekin. Gorputza, aldiz, desberdintze- eta baztertze-taxonomiekin definitzen da beti, beraren ertzen, tarteen, espazio fisikoan duten kokagune eta tamainaren, edo dentsitatearen bitartez, eta barneratua edo bildua dagoen gainerako materiari bereizten da.

Donna Harawayk beti hain modu eskuzabalean eskaintzen dituen hari emankorrei helduko diet, haietan korapilatu gaitezen eta gainetik ken ditzagun «gizakia» (*post-aurrizkiarekin bada ere*) erreferentzia eta abiapuntu gisa hartzen duten begirada antropozentrikoak. Postgizakiaz hitz egin beharrean *humus* konpostatuaz hitz eginez gero, Harawayk¹ proposatzen duen bezala, gizakiaren, ez-gizakiaren eta gizakiaz

¹ Donna Haraway, *Staying with the Trouble: Making Kin in the Chtulucene*. Duke University Press, 2016.



gaindikoaren arteko bereizkuntzak nabarmentzen segitzea saihesten da, zeren eta bereizkuntza horiek ekarri dute gorputzak, organismoak eta lurraldeak denboran zehar esplotatzea, *indarkeria geldoko*² prozesu sostengatu, isil, asegaiz, estraktibista, zehatz, anker eta ahitu batean.

Hala, ekosistema biologiko baina aldi berean historiko, sozial, toxiko, kuantiko eta politiko batean endredatutako materia gisa uler dezakegu gorputza, baina batez ere haren materia zeharkatzean difraktatzen diren eta aztarnak, interdependentziak eta talkak agerian uzten dituzten geopolitikak eta genealogiak marrazteko ebidentzia gisa. Materia zintzilikatu bat, konpostatuz nekez garatzen dena aldi berean iragana, oraina eta geroa uztartzen dituen espazio-denbora batean, eta bere burua egiten eta desegiten duena *orainaldi trinko*³ batean.

Horrez gain, postgizakiaren gorputzaz ari garenean, garrantzitsua da posthumanismoak eta transhumanismoak haren erabileraz egiten dituzten funtsezko desberdintasunak bereiztea. Posthumanismoak -Nietzschetik hasi eta teknofeminismora, Rosi Braidottiren⁴ proposamenak tartean- zalantzan jartzen du gizatiarra denaren pribilegioa; transhumanismoak, aldiz, haren bikaintasuna sostengatzen eta goraipatzen du, hura teknologiarekin hibridotzen duen heinean. Giza espeziearen gaineko gehiegizko konfiantza horrek ekarri du, hain zuzen, georingeniaritza⁵ garatzea praktika kapitalistak oinordetzan utzi duen larrialdi klimatikoari aurre egiteko, baliabide teknozientifikoek gehiegizko erabileran eta gehiegizko konfiantzan oinarritzen baita kapitalismoa. Baliabide horiek, izan ere, beharrezkoak dira, baldin eta zerikusia badute eta bat egiten badute konpostean nahaspilatuta gauden guztion bizitza atmosferiko, geologiko, biologiko, hidriko edo atomikoak⁶ hobetzearekin.

Bestalde, gizakiaz ari garenean, ezin dugu ahaztu badirela gizakiak eta *gizakiak*. Generikoki *gizaki* esaten zaion hori historian zehar pilaturiko pribilegio jakin batzuk dituen gorputz bat da, eta gizakiaz azpitik dagoena inongo zalantzarik gabe segregatzea dakar berekin.

Gizakiaz azpiko gorputza gorputz toxifikatu eta anputatu bat da, gobernuen, korporazioen eta bere espezie bereko kideen indarkeria historikoak gainean daramatzana. Protokapitalismoaz geroztik, lehen kolonizazio-prozesuak eta gorputz eta lurraldeen gaineko praktika estraktibisten ondoriozko kapital-metaketa gertatu ondotik, ekonomia liskartuen eta ekologia zaurituen masa ikusezin batean harrapatuta geratu da, eta halaxe eratu dira hirugarren mundu deritzon hori, komunitate

² Rob Nixon. *Slow Violence and the Environmentalism of the Poor*. Harvard University Press, 2011. Rob Nixonek *indarkeria geldo* terminoa erabili zuen ingurumenaren eta haren mendeko komunitateen aurkako indarkeria gradual eta ikusezina izendatzeko. Indarkeria mota horrek areago ahultzen eta higitzen ditu, gradualki, bizitzeko oinarritzko baldintzak.

³ Haraway, *Staying with the Trouble: Making Kin in the Chtulucene*.

⁴ Rosi Braidotti, *The Posthuman*. Polity Press, 2013.

⁵ Georingeniaritza edo ingeniariatza klimatikoa teknika geoteknologiko multzo bat da. Zehazki, eguzki-erradiazioa kudeatuz eta karbono dioxidoa murriztuz, gai dira klima eskala handian artifizialki eraldatzeko; dena den, zenbait ikerketak ondorioztatu dute ez direla eraginkorrak edo larriak izan daitezkeen albo-kalteak dituztela.

⁶ Atomikoak esaten dudanean, materia osatzen duten oinarritzko partikulez ari naiz, hau da, fisika kuantikoan aztertzen diren horiez.



desplazatu eta erailak, eta planetako edozein tokitan giza gorputz eta forma guztien aurka erabilitako botere-gehiegikeria.

Besteen etorkizunean harrapatuta bizi gara; munduan egoteko modu arras biolento baten ereduaren arabera diseinatuta dago etorkizun hori, eta hondakinak eta bizitzeko moduen hondarrak ekoiztea dakar inplizituki berekin.

Konpostatzen garen gorputzok, lur-esferekiko interdependenteak eta lur-esferaz osatuak elkarrekin lan egiten duten material biologiko, kimiko, geologiko⁷ eta hidrikoen bidez, halabeharrez lotuta gaude gizakiaren ekimen eksklusiboz lurrazalean sortu den eta etenik gabe hazten ari den geruza berri artifizial batekin, teknosferarekin⁸, zeina duela 4.600 milioi urte ingurutik Lurra osatzen duten geruzei gehitu baitzaie. Esfera hori teknologiaren eta giza ekintzen arteko konbinazio bat da, gizakiek eta haien artefaktu, protokolo eta informazioek, eta gure kudeaketa- eta produktibitate-sistema teknosozialen parte diren ekosistemek osatua. Esfera artifizial berri hori harremanetan dago beste lur-esfera batzuekin (litosfera, hidrosfera, kriosfera, atmosfera eta biosfera), baina badu zerbait haietatik desberdintzen duena: ez du autobirziklatze-sistema egokirik erabiltzen.

Metabolismo toxikoko prozesuen bitartez, teknologia metatzen dugu gure molekuletan, ez transhumanismoaren bikaintasun-ikuspegitik, baizik eta beste era batzuetan: plastiko sintetikoak, berotegi-efektuko gasak, lehen arma nuklearren probak egin zirenetik atmosferara isuri eta han harrapatuta geratu den uranio aberastu artifiziala, mugak eta baliabideak kudeatzeko protokoloak, edo jarduera estraktibistetan elementu kimikoekin kutsaturiko urak; azken horien artean, lur arraroetako meatzeak⁹ edo litio-meatzeak aipa litezke, denak ere beharrezkoak gure gailuak garatzeko, teknologia militarra aurreratzeko edo energia *jasangarri* deritzenak ekoizteko.

Baina konposta, hain zuzen, hondakinez eta deskonposizioz egina dago; hondakin horiek emankorrak dira, bizi berriak ongarritzen dituzte, beren ekosistemarekin elkarlanean, haren aurrean *erantzuteko trebetasunak* dakarren *erantzukizunarekin*¹⁰. Gainera, konpostatzen diren gorputzak bakterio sinbionte¹¹, autotrofoz eta organismo kimiosintetiko¹² osatuta ere badaude, eta elementu horiek lagungarriak dira teknosfera metabolizatu eta bizitzarako erabili ahalko diren konposatuak sortzeko. Lynn Margulis biologoak proposatu zuen bezala, sinbiosiari eta elkarlanari esker garatu da bizitza planeta honetan. Azken batean, hauts kosmikoz osatuta gaude denok,

⁷ Gorputz organikoen konposizioan badira mineralak ere, hala nola gatzak edo burdina.

⁸Termino hori Peter Haff-ek sortu zuen, 2014an. Dukeko Unibertsitateko (AEB) ingurumen-ingeniaritza zibileko espezialista da Peter Haff.

⁹ *Lur arraroak* izen komuna erabiltzen da «arraro» deritzen 17 elementu kimiko izendatzeko. Ez da ohikoa elementu horiek egoera puruan aurkitzea, baina mundu guztian barna badira haien metakinak. Haien erauzketa oso kutsakorra da; izan ere, energia kantitate handia behar da, isuri erradioaktiboak eragiten dira, eta bereizketarako erabiltzen diren substantzia kimikoek akuiferoak eta lurzorua toxifikatzen dituzte.

¹⁰ Haraway, *Staying with the Trouble: Making Kin in the Chthulucene*. Ingelesezt, *response-ability* terminoa darabil Harawayk (hitzez hitz, 'erantzuteko trebetasuna'), *responsibility* hitzarekin ('erantzukizuna') hitz-jokoa eginez. (Itzultzailearen oharra)

¹¹ Sinbiosia desberdinak diren espezieetako organismoek beren bizi-garapenean elkarrengandik onurak jasotzeko egiten duten interakzio biologikoa edo harreman edo elkartze intimoa da.

¹² Kimiosintesia edo kimioautotrofia materia inorganikotik abiatuta materia organikoa sintetizatzean datza. Zabortegetan, hasiak dira agertzen plastikoa, metala edo material erradioaktiboak ziklo biogeokimikoetara itzularazten dituzten harren bakterio eta entzimak.

eta Big Bangaren osteko lehen izarrek sorturiko karbonoan oinarritzen da gure bizitza.



«We become-with each other or not at all»,
Donna Haraway



GORPUTZAREN BIDEZ PENTSATZEN ANTZINAKO TXINAN

Albert Galvany



Gorputzaren bidez pentsatzea. Ideiak berak badu, oraindik ere, halako inkongruentzia paradoxiko kutsua guretzat. Azken batean, mendebaldeko tradizioan behinik behin, pentsamendu abstraktua gailendu egiten zaio mugimenduari, hausnarra ekintzari, eta diskurtsoa imintzioari. Pierre Hadotek nabarmendu zuenez, antzinate greko-latindarrean inor filosofotzat jotzeko ez zen nahikoa errealitatearen teoria edo sistematizazioen bat proposatzea; halaber, diskurtso horrek bizi-estilo batekin lotura zuzena eduki behar zuen. Aitzitik, arrazoiaren eta hitzaren (*logos*) jarduera ia eskusibotzat dugunez, arrazoitze orduan trabatzat jo du gorputza filosofiak, adimenaren gaitasun gorenen bidez diziplinatu beharreko nahasmendu-iturri bat bailitz bezala. Ertzetara baztertuta, filosofoaren gorputz-dimentsioak apenas pizten du jakin-minik. Platonen pieza bati ekitean, esaterako, irakurleak joera izaten du Sokratesen eta haren solaskideen arteko hitz-trukeari arreta jartzeko, bakoitzak kontzeptuak nola definitzen dituen erreparatzeko, argudioen sendotasun logikoa neurtzeko, edo arrazoiketetan erakutsitako trebezia dialektikoa estimatzeko; pertsonaien keinuei buruzko xehetasunak, ordea, ez dira obraren sinesgarritasuna eta bizitasuna indartzeko apaingarri besterik.

Antzinako Txinan hausnarketa filosofikoa, horri hasiera eman zion Konfuzioren arabera behintzat, esandako hitzetan baino, posturetan eta keinuetan datza. Txinako pentsamendu klasikoaren muinak erritua du ardatz, eta horixe da tradizio horretan gizakiok animaliengandik bereizten gaituen ezaugarria; nolanahi ere,



errituak gorputzaren parte-hartzea ezinbesteko baldintza du, hainbat eta hainbat testu klasikotan adierazten den moduan. Antzinako Txinako bizitza politiko eta sozialaren parte handi bat zeremoniaren baldintzek markatuta dago, eta horiexek agintzen dute zer-nola jokatu ehorzketa, oturuntza, konbentzio diplomatiko, familia-bilera edo lagun arteko topaketetan. Errituak eskatzen dituzten gorputz-keinuak errutina-patroietan oinarritzen dira, eta zeinu kodifikatuen sistema bat osatzen dute, hitzen bitartekotzarik gabeko hizkuntza moduko bat, mezuan transmititzen dena baino gauza gehiagoren berri eskaintzen duena. Gainera, harreman sozialak errazten dituzten heinean, oso baliogarriak dira egokitzapenerako. Zeremonia-arauak behin eta berriz errepikatzearen poderioz gorputza ahalik eta ongien trebatzeari ematen zaio garrantzia, eta, beraz, naturala da garai hartako erritu-tratatuak jarraibidez gainezka egotea, protokolo-egoera horietan jarduteko modu egokia sutsuki azpimarratzea baita helburua. Errezeta modukoak dira; interesdunari gorputzaren ageriko adierazpenen bidez barne kalitate moral egokia nola adierazi erakusten diotenak, besteak beste. Konfuzioren proposamena testuinguru ideologiko horretan kokatzen da, eta bere proiektu filosofikoaren erdigunean errituaren nozioa aurkitzen dugu, dimentsio hori ulertzeko eta esperimentatzeko ohiko modua erroitik aldatu zuelarik. Konfuziok eta haren jarraitzaileek erritua funtsezko kategoria gisa ezarri zuten, eta zeregin zentrala eman zioten gorputzari beren programa politiko, sozial eta filosofikoan. Errituaren bidez doitzea, neurri handi batean, norberaren gorputza doitzea da.

Hori horrela izanik, ulergarria da Konfuziok lehentasuna ematea keinuari, eta bigarren mailan uztea diskurtsoa, hitza igortzea; *Solasaldietan (Lunyu)* behintzat hala ageri zaigu. Lan horren izenburuaren itzulpenak elkarriketa eta platika aipatzen baditu ere (“diskurtso hautatuak” litzateke zentzurik literalenean), egiari zor, *Solasaldietan* barneratzen den irakurle ohitugabeak ezin izango du nolabaiteko etsipen sentsazioa saihestu. Bertan ez dago elkarriketarik, ez eztabaida garaturik, ez kontzeptuen inguruan aurrera egiten duen debaterik. Konfuzioren jardunaldietan nagusi dira muturreko kontentzioa eta laburtasuna. Isiltasunari setati heltzen dio, ez gutxitan, dizipulu eta solaskideen atsekaberako, eta irmoki salatzen du hitzontzikeria berrietsuaren ugaritze arrakastatsua. Jean Levik eta Andrew Huik adierazten duten moduan, Konfuziok darabilen hizkuntza lakonismoak markatua dago. Nekez egiten ditu hitz gutxi batzuk jarraian, eta bere esaldiak, aforismoaren mugan, erredundantziak, harridura-markaz, interjekzioz, eta inongo karga semantikorik gabeko partikula enfatikoak beterik daude. Konfuzioren ahotan jarritako formula trinkoak enblema akustikotzat har litezke, musikalak ia, eta horien esanahiak gehiago egiten dio



erreferentzia sorburu izan duten zirrarari ohiko komunikazio-asmoari baino. Ez da harritzekoa *Solasaldien* pasarte ospetsu batean hitzik gehiago ez egiteko gogoia aitortzera ere iritsi izana. Asaldaturik, bere jarraitzaile gertukoenetako bat maisua asmo horretatik desbideratzen saiatzen da, behin betiko isilduko balitz dizipuluek ez luketela zer transmititu izango esanez. Dizipulu horrek maisuaren ahotik bueltan jasotzen duen erantzuna ezin adierazgarriagoa da: “Hitze egin beharrik ba al du zeruak? Lau urtaroak badoaz, izakiak badatoz. Hitz egin beharrik ba al du zeruak?”. Konfuziok urtaroen eraginkortasunaren pare jardun nahi luke, igarotze erritmiko eta isil horrek bizitza ugaltzea ahalbidetzen baitu. Urtaroen zikloen iragate pausatua, ordena naturalaren oinarri bizigarria, Konfuzioren inspirazioaren ortzi-muga bihurtuko da, eta errituen logikan erabat murgildurik, ekintza mutuaren indarraren alde egingo du, hitz-jario antzuen gaineratik.

Ulertzekoa da, beraz, *Solasaldien* irakurle moderno askoren etsimendua. Izan ere, ohiko parametroetatik abiatuta, egoki litzatekeen *Confucius philosophicus* baten bila joan, kontzeptu abstraktuak sortzen eta eztabaidatzen dituen pentsalari baten irudia espero, eta tautologiaren mugako pellokeria murrizteaz osatutako proposamen batekin egiten dute topo, zeinean, gainera, maisuaren gorputz-ekintzen deskribapen xeheak barra-barra azaltzen baitira. *Solasaldiak* jarraibide zinetikoen inbentario beteak dira, maisuak emanak, keinu liturgikoenetatik hasi eta prosaiko zein hutsalenetaraino doana: jauregi bateko gela bateko eskailerak igotzean bere oinek egiten duten mugimendua, hileta batean parte hartzen dueneko atsekabe keinuak, sakrifizioetarako ontzi bat heltzen dueneko gorpuzkera, edo bere koadriga gainean doanean duen postura, jaki bat dastatzerakoan azaltzen dituen manierak, gonbidatu bati ongietorria egiten dioneko aldartea... Deskripzio horiek guztiek gogaikarriak eta gatzilak badirudite ere, estilo pertsonal baten testigantza izan nahi dute irakurlearentzat (estiloa, azken batean, bizitzan barneratzeko gure forma zehatzaren adierazle baino ez da), eta, horrekin batera, sarbidea eskaini nahi digu ekintza horien jatorrizko jiterak. Horretan ari garela, zilegi bedi kaligrafiarekin edo txinatar idazkeraren artearekin analogia egitea, gehiago baitu horrek ere keinutik irudi hutsetik baino. Izan ere, euskarri gainean tintaz eginiko zeinuak, azken batean, mugimendu baten aztarna moduan interpretatzen dira, eta gorputzaren aktibitate jakin baten zantzu gisa baino ez dute baliorik hartzen, trebezia eginiko keinu diren heinean. Era berean, *Solasaldietan*, irakurketak berak eskaintzen duen irudimenaren zabaltze eta enpatia ariketari esker, Konfuzioren jarraibide somatikoei buruz utzitako zeinu idatziek maisuaren nortasuna antzematea



ahalbidetzen dute, hots, bere kalitate morala antzematea, azken batean; unean-unean modu batera zein bestera jokatzera eraman duen prozesua bera.

Baina gehiago ere bada. Barbara Monterok edo Kimerer LaMotheek dantza eta beste gorputz-jarduera batzuen inguruan eginiko analisisiek frogatu dute dantzariak ez dituztela soilik beren mugimenduak ebaluatzen edo doitzen, esaterako, ispilu aurrean epaitzen dute hauen itxura. Izan ere, eta hortxe dago koxka, erreparatu egiten diote eginiko mugimendu bakoitza beren gorputzak estetikoki erregistratzeko duen moduari. Propiozepzioaz ari gara. Ahalmen horri esker, gure gorputzaren posizioei eta mugimenduei buruzko informazioa eskuratzen dugu giltzaduren, tendoien, lotailuen, muskuluen eta larruazalaren bitartez. Zentzurik hertsienean ulertuta, propiozepzioa esperientzia pribatua da, baina egile horien ustez bada enpatia mota fisiko bat, besteen mugimendu eta keinuak hautemateko bide ematen diguna, eta neurri handi batean, ispilu-neuronek ahalbidetzen dutena. Dantzari batek sentitzen duenaren arabera bere mugimendua kalibra dezakeen bezala, ikusle batek dantzariaren mugimendua ebalua dezake, dantzaria oholatza gainean bezala mugitzean sentitzen denaren sentsazioa oroitzuz edo imajinatzuz. Horrek azalduko luke zergatik den hain baliagarria bere ikaskuntza-prozesurako hasiberri batek beste norbait dantzan edo musika-tresna bat jotzen ikustea. Horregatik, dantza edo musika arloko birtuoso baten erakustaldiak eragingo ligukeen modu berean, Konfuzioren estilo pertsonalaren deskribapen errepikak ere eragina izango lukete gudan, gure gaitasun enpatiko eta propiozeptiboei esker, eta hala, bere koreografia existentzial partikularra, bere erritua ulertzeko modua emulatzeko eta ikasteko bidea zabaltzen zaigu.

Erritua ulertzeko modua, Konfuzioren kasuan, ez da mugatzen tradizioak sustatutako protokolo-arauen imitazio mekaniko eta zurira. Konfuzioarentzat erritu-ekintza arauak errespetatzen dituen erantzuna da oroz gain, baina haren esentzia sentimendu espontaneo eta zintzoen jarioan datza, eta sentimendu horiek egoera jakin bakoitzaren eredu formalek harmoniaz bideratzen dituzte. Beraz, parte-hartzaileak aintzat hartzea eta ingurumenaren aldiak aldiko beharretara egokitzea eskatzen du. Bada Martha Nussbaumez erabilitako konparazio bat, estetika eta etika batzen diren puntura itzularazten gaituena. Horren arabera, orkestraren zuzendariaren seinaleak eta partiturako idatzoharrak zintzo interpretatzeaz kezkatutako musikari sinfonikoa baino, jazz musikaria litzateke Konfuzio; tradizioari zor zaion fideltasunaren eta ustekabeko melodia berriak sortzearen arteko oreka etengabea beti, kideen interbentzioak integratzen dituen, eta lokaleko atmosferarekiko sentibera ere badena. Bestela esanda, Konfuzioren begietara, erritu-ekintza perfektuak elementu naturalen eta



artifizialen dosifikazioa konbinatzen ditu, kodifikazioaren eta inprobisazioaren arteko oreka-printzipio delikatu baten kudeaketa eskatzen du, gorputzaren grazia indargarri duena.

Pierre Hadot, *Exercices spirituels et philosophie antique*. Paris: Albin Michel, 2002.

Jean Levi, *Confucius*. Paris: Pygmalion, 2002.

Andrew Hui, *A Theory of Aphorism: From Confucius to Twitter*. Princeton: Princeton University Press, 2019.

Barbara G. Montero, *Thought in Action: Expertise and the Conscious Mind*. Oxford: Oxford University Press, 2016.

Kimerer LaMothe, *Why We Dance. A Philosophy of Bodily Becoming*. New York: Columbia University Press, 2015.

Martha C. Nussbaum, *Love's Knowledge: Essays on Philosophy and Literature*. New York: Oxford University Press, 1992.



GORPUTZA, LITERATURAREN ERAIKUNTZA MATERIALA

Nerea Arruti



Roland Barthesek iragarri zigun egilearen heriotza bere saiakera ospetsuan, zeina kasik manifesto bihurtu zen. 1967.ean argitaraturiko “La mort de l’auteur” testu-manifestoak irakurlearen ahalduntzea aldarrikatzen zuen. Gurean Txuma Lasagabaster kritikariak (Donostia, 1931-2013) ekarri zuen Barthesen pentsamendua euskal kritikagintzara. Urte berean, 1967.ean abiatu zen Lasagabaster Parisa literatur ikasketak sakontzera eta bertan *École des hautes études*eko graduondoko ikasketetan Barthes izan zuen irakasle. Frantziatik itzuli ondoren, Euskal Filologia ikasketetan, Barthesen ideien ikur gisa nobelagintza berria aztertzen zuen ikasleekin, besteak beste, Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* (1969) eta Txillardegiren *Haizeaz bestaldetik* (1979) erabiltzen zituen paradigma berriaren ilustrazio gisa. Estrukturalismoaren pedagogia lana Lasagabasterrek burutu zuen euskal kritikagintzan. Euskal letretan ere egilearen aroa bukatu eta irakurlearen aroa hasi zen.

Literatur kritikagintzan onartu dugun errelato jakin batean, egilea hil ondoren, egiletasuna indar berriturik itzuli zen, Foucaulten analisisan aro konfesional bat eraikiz. Haatik, egilearen heriotza eta itzulerarenean errelato jakin bat da eta badago kritikaririk, esate baterako Sean Burke, zeinak dioen egilea ez zela inoiz hil, baizik eta beste egile mota bat bideratu zela.¹³ Gogoan izan Julio Cortázarren *Rayuelak*, garai berrietarako

¹³ Sean Burke, *The Death and Return of the Author: Criticism and Subjectivity in Barthes, Foucault and Derrida*, Edinburgh University Press, Edinburgo, 2008.



eleberri eraldatzaileak, bi irakurle mota bereizten zituela: aktiboa, maskulinoa, eta pasiboa, femeninoa. Literatur testua beste modu batera irekitzen bada ere, egilearen autoritatea egon badago, heriotzarik ez, reinskripzioa baizik.

Feminismoaren ildotik, Sara Wilson adituak egilearen heriotzak feministontzat aporia bat suposatzen duela argudiatzen du: emakumezkoek kanonean sartzeko gatazkari eusten diotenean kanona sustatzen duen autoritatea hiltzea aldarrikatzen da. Horren aurrean bi aukera azpimarratzen ditu Wilsonek, bata heriotzak emakumezkoek askatasun handiagoa ematen die eta bestea, askatasun berri hori ukatzen duena. Hirugarren aukera balizkoa lekukotze estrategiko bat litzateke.¹⁴

Horri gehitu behar diogun geruza Barthesen ibilbidea da. Barthesek egilearen heriotza aldarrikatu ondorengo fasean proiektu autobiografikoari eutsi zion, 1975ean argitaraturiko *Roland Barthes par Roland Barthes* liburuan¹⁵. Testuaren aurkibidea aurretik honako ohar hau ematen dio irakurleari : «Hau dena irakurri behar da nobela pertsonaia batek esango balu bezala. » Nolatan hori ? Idazterakoan ni-aren suntsiketa gertatzen da, suntsiketa eta ez egia. Testu horretan agertzen den ni-a Barthesen imaginarioari dagokiola dio Barthesek. Testu zatikatu horretan (frakmentuan oinarrituiko testua da, tartean dagoen espazioari ematen baitio garrantzia) idazketa gorputzetik pasatzen dela eta esterotipoa gorputzetik pasatzen ez den pertsonaia dela azaltzen digu.

Barthesek bere amaren heriotzaren ondoren idazten du *La chambre claire*, eta Barthes bera hil eta gutxira argitaratzen da (1980): saiakera labur eta mardulak argazkilaritza aztertzerako garaian kontzeptu berriak ekarri zizkigun eta etxeko intimitatetik, ideien laborategi txikitik, argazkiak irakurtzeko tresnak azaleratu dizkigu Barthesek. Esan genezake saiakera teoriko hori amari idatzitako maitasun gutuna dela, argazkiak eta denbora ardatz harturik.

Gurean nabari da ez dugula analisi kritikoa garatu azken urteotan jaso dugun literatur artefaktu berritzaileenetarikoa bat irakurtzeko. Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materiala* nobela da hau (2021). Barthesek estrukturaklismotik postestrukturakismora egin zuen bidean aurki dezakegu beharrezkoa dugun hizkuntza kritikoa. Gorputzetik idatzitako testua dugu hau, eta Barthesen ildotik, Eider Rodriguezek Eider Rodriguez nobela pertsonaia gisa irakurtzeko eskatzen digu, beraz nobela hau ez da autofikzioa, bizitza fikzionatu bat baizik. Lander Garroren azaleko argazkian zuhaitz atzean erdi-ezkutuan emakumezko figura dugu, erakutsi eta ezkututzen denaren arteko

¹⁴ Sara Wilson, *Situated Authorship: Feminist Critical Engagement with Roland Barthes The Death of the Author, Verso: An Undergraduate Journal of Literary Criticism*, 2012.

¹⁵ Gaztelaraz *Roland Barthes par Roland Barthes*, Ediciones Paidós, Barcelona, 2004.



tentsioa da argazki honen *puctuma*, hots, Barthesen hitzetan argazki batean ikuslea ukitzen duena. Lotsaren gaia testuaren muinean dago eta liminaltasun horrek, argazkian ere gozpuzten dena, Eider Rodriguezen aurreko ibilbide narratiboa laburbiltzen duen poetika helarazten digu. Gorputzetik idatzi du testua eta gorputz mindu horrek erakitzen du testuan irudikatzen den poetika. *Roland Barthes par Roland Barthesen* bezala atalen arteko espazioak ere garrantzia du nobelan eta *La chambre claire* saiakeran bezala liburua maitasun gutuna da, kasu honetan aitari:

2019ko azaroaren 4a

Zu ezagutzeko modu desesperatua da idaztea.

Zu bizirik mantentzekoa.

Zu laztantzekoa.

Zurekin egoteko modu bakarra.

Gaixorik behar zenuen sendatzeko.

Hilda bizirik egoteko.¹⁶

Autofikzioak sortarazi dituen hainbat eztabaida antzuren artean ni-aren literaturaren sinplifikazioa izan da albo kalterik nagusiena. Autofikzioa ez denean ere, hala irakurtzen dute kritikari baldarrek. Ezin da aparatu kritiko ximple bat izan hain nobela handia irakurtzeko eta proposamen honetan Barthesen bidez irakurtzera gonbidatzen zaituztet.

¹⁶ Eider Rodriguez, *Eraikuntzarako materiala*, Susa, Zarautz, 2021.



IRUDI HUTSAK AL GARA?

Iñigo Martinez Peña



Egungo marketinaren hainbat guruk pertsona birtualen abantailak laudatzen dituzte. Ezin garbiago adierazi du Christopher Traversek, *virtualhumans.org* enpresaren sortzaileak: «Epe luzera, izaki birtualak gizakiak baino askoz merkeagoak dira; ez dira gaixotzen, ez dira zahartzen, ez dira hiltzen eta erabat kontrolagarriak zaizkigu». Bere enpresak, noski, modelo eta *influencer* digitalak sortzen eta saltzen ditu.

Egungo modelorik ospetsuenetarikoa, adibidez, Imma dugu. Eta, Immak, badu ezaugarri berezi bat: ez da hezur-haragizko pertsona, Aww Inc *start-up* japoniarraren hiru dimentsioko sorkuntza digitala baizik. Tokio, Londres eta Parisko kaleetan zehar paseatzen aritu da, irudi tridimentsionalak sortzen dituen *holografia* deituriko teknikari esker. Ikeak bere Tokioko dendan erabili izan du, sarritan, guztiz hornitutako etxebizitzak iragartzeko. Ez dugu, jada, guk sartu behar mundu birtualean: mundu birtuala sartzen da gugana. Zein da bien arteko muga lausoa?

Politikariek, modu berean, teknika holografikoa erabili izan dute, beren mitinak hainbat tokitan eta batera eman ahal izateko. Gisa horretako aurrenekoa Narendra Modik eman zuen, Indiako presidente ohiak, 2012an: mitina India osoan zehar sakabanatutako 140 agertokitan jarraitu ahal izan zuten 50 milioi lagun inguruk. Turkian, berриз, Erdogan lehen ministroak hiru metroko irudi tridimentsional



erraldoia erabili zuen 2014ko mitin batean. Edo, Frantzian ere, Jean-Luc Melenchonek bi ekitaldirekin abiatu zuen 2017ko kanpaina: Lyonen eta Parisen aldi berean agertu zen, holografikoki.

Eta ez dira politikariak teknika horretara jo duten bakarrak: musikariei ere aukera ugari eman dizkie. 2012an, adibidez, Tupac rap musikaria Kaliforniako musika jaialdian agertu zen. Horrek ez zukeen inor harrituko, Tupac hilda egongo ez balitz! Bere irudia holografikoki berpiztu zuten kontzerturako.

Badira holografiaren adibide bitxi gehiago, tiraka jarraituz gero. Txinan, besteak beste, maskota birtualak jarri dira modan. Horra hor, maskota hilezkorrak! Gehien erositakoen artean katutxo tridimentsionalak daude. Zein dira saltzaileek goraipatutako abantailak? Ez direla garbitu behar, ez dutela usainik botatzen eta ez direla albaitariarengana eraman behar. Eta, nahi izanez gero, janari, jostailu eta arropa digitala ere eros dakieke.

Kontuak kontu, irudi huts bihurtzen ari gara... edo hori bilakatu dira egungo hainbat modelo, politikari, rock-star edo maskota. Eta, egia esan, irudiaz gain gorputza ere badugunontzat ez da hain erraza geure irudiarekin harremantzea. Zauri sendaezina zabaltzen da, askotan, gure gorputzaren eta gure irudiaren artean. Gaurko zimur berri hori, goizeko begi-zuloak, jausten hasitako ilea, gizendutako sabela edo ipurdia... Nor arraio da hori? Non dago izan nintzena? Gure amak, 87 urte bete berri dituela, ispiluaren aurrean harrituta galdetzen dio bere buruari: nora joan dira lehen neuzkan hanka politikak? Batzuetan Dorian Greyk deabruarekin egindako paktu berbera egin nahiko genuke eta betiereko gaztetasuna sinatu...

Erabat alboratu nahi al dugu, ordea, gorputzaren zama? Errealitate erosoagoa ote da gorputzik gabeko errealitatea? Garbiagoa? Higienikoagoa?

Zikin hitza, kurioski, latinezko *zuku* hitzetik dator: bizitzaren zukua eta zikinkeria korapilaturik daude. Eta nik, gaurko artikuluan, gorputzen alde egin nahiko nuke: mundu birtualetatik honago bizi diren gorputzen alde. Idolatratu gabeko gorputz zikinak, beren gabeziekin, beren mugekin, beren inperfekzioekin, beren edertasunekin, beren hitz egiteko moduekin. Bere horretan maitagarriak. *virtualhumans.org* enpresako nagusiek erabat garbitu nahi gaituzte, baina gorputzen erotikak, zorionez, beste zapore bat dauka.

Berrian, 2022ko azaroaren 2an argitaratua.



SARA LAFUENTE: “LAGUNDUTAKO UGALKETAREN BIDEZ MUNDU IKUSKERA JAKIN BAT BIRSORTZEN ARI GARA”

Miren Artetxe



Gaur egun ugalketa lagunduari buruz ari da ikerketan, nagusiki; teknika zientifiko bidez bizitzak nola sortzen diren ezezik, mundu ikuskerak nola birsortzen diren aztertzen du.

Tesia biozientzien eta biomedikuntzaren alorrean egin zenuen. Baina, soziologia ikasi zenuen, ezta?

Halaxe da. Nire familia oso letretakoa izan da beti. Bi gurasoek zituzten unibertsitate ikasketak, eta ni jaio ondoren ere, amak ikasten jarraitu zuen, eta unibertsitateko irakasle bilakatu zen. Aita kazetaria zen, eta ahizpak soziologia ikasi zuen. Eta nik ere bai. Batez ere mugimendu sozialak interesatzen zitzaizkidan. Mundu asanblearioak erakartzen ninduen, eta egitura sozialak ezagutu nahi nituen, aldaketa posibleei buruz hausnartzeko. Baina, ikasketak erabat aspergarriak egin zitzaizkidan hasieran. Bukaera aldera, ordea, irakasle gazteagoak ezagutu nituen, soziologia politikoa lantzen zutenak. Elena Casado, Amparo Lásen, Carmen Romero... Gizarte aldaketak aztertzen zituzten, genero ikuspegitik eta mediazio teknologikoaren ikuspegitik. Eta bereziki erakarri ninduen zientzia eta ezagutza bera zalantzan jartzeko modu hark. Jakiteak ezagutza oro dela kokatua. Zientzia ez dela neutrala, eta ez dagoela



ezerezairen gainean eraikia. Zientzia kontakizun bat da, bizitzaz hitz egiteko modu bat, eta kontakizun hori aztertu nahi izan nuen.

Mugimendu sozialekiko interesetik medikuntza eta biozientziak aztertzeraz, beraz.

Ez daude hain urrutia... Biologiak eta medikuntzak definitzen dute mundua eta geure burua ikusteko dugun modua. Nor garen definitzen dute. Askotan boterea ikusten dugu zuzenbidean, ekonomian, politikan... Zientzia ere boterea da, ordea. Diskurtso zientifikoek ere gizartea egituratzen dute. Eta nik horren esperientzia bizi izan nuen, birritan.

Txikitan osasun arazoak izan nituen eta denbora pasa nuen ospitalean. Kontaktu zuzena eduki nuen medikuntzarekin. Gaixorik egon nintzen, eta sendatua izan nintzen. Gaixoen eta osasuntsuen arteko muga hori zeharkatu nuen. Eta trantsizio hori bizi izanak uste dut arrastoa utzi zidala. Arrastoa, eta jakin-mina.

Bestetik, nerabezaroan heteroarautik atera izanak ere baliteke eragina izatea aukeraketan. Horrek aurrez aurre jartzen zaitu gorputzari, sexualitateari eta ugalketari buruzko diskurtsoekin, eta berriz ere, normalaren eta ez normalaren arteko muga horrekin. Eta zure begiz ikusten duzu muga hori eraikia dela. Zure gorputza ez dagoela, berez, “beste aldean”. Diskurtsoek eraikitzen dituztela aldeak.

Masterra egin eta ikerketan hasi zinen... partenogenesiaz. Zer arraio da hori?

Partenogenesia ugalketa mota bat da. Animalia mota guztietan gertatzen da, ugaztunetan izan ezik. Batez ere intsektuengan gertatzen da. Edo munduko muskerrik handienengan, komodoko dragoiengan. Ugalketa mota honetan ernaldu gabeko obulu batetik sortzen dira enbrioak, eta, beraz, bizitza berriak. Gameto arrak ez du ugalketan parte hartzen. Eta espezie horretako animalia guztiak emeak direla esaten da. Zer esan nahi du, ordea, halako testuinguru batean, “eme” izateak? Are gehiago, *eme birjinen ugalketa* gisa ere definitzen da partenogenesia. Zer da, birjintasuna? Idatzi izan da, bestalde, “eme” hauek “arren” gorteatze eta estalketa jokabideak imitatzen dituztela. Nola imitatuko dute existitzen ez den “ar” bat? Horrela hitz egiteak ez luke zentzurik gure ugalketa ulertzeko modua erabat heteroarauan oinarritua ez balitz.

Partenogenesia ikertzetik nola igaro zinen ugalketa lagunduaz ikertzeraz? Ez da jauzi ikaragarria?



Ez hainbeste. Partenogenesisiaz hitz egiteko moduan ageri da gure ugalketa ulertzeko modua gure mundu ikuskeraren mugek definitzen dutela. Ugalketa lagunduaz hitz egiten dugunean ere halaxe da. Ugalketaz hitz egiten dugu prozesu natural neutro bat huts -hutsean deskribatuko bagenu bezala, baina ez da horrela. Halaber, ugalketa lagunduan badirudi prozesu naturala erreproduzitzen ari garela, besterik gabe, baina, egiazki, gure kulturaren araberrako errealitate bat sortzen ari gara.

Has gaitezen hasieratik. Zertan ez da neutroa gure ugalketa ulertzeko modua?

Pentsa. Obuluez eta espermatozoideez hitz egitean ia erromantze bat deskribatu ohi dugu. Bi zelula dira, bata gizonarekin eta bestea emakumearekin oso identifikagarriak. Espermatozoidea heroi gisa aurkezten dugu, eta obulua pasibo gisa. Espermatozoidea da bidea egin eta obulua penetratzen duena. Obulua penetratua denean aktibatzen da, eta hor sortzen da magia.

Iruditeria hori daukagulako dauzkagu orain bertan ditugun ugalketa lagundurako teknikak eta ez beste batzuk. Izan ere obuluak, esaterako, ez dira, izatez, zelula aislatuak. Errealitatean zelula multzo baten parte dira. Obuluaren inguruko zelulak dira, adibidez, espermatozoideak eta obuluak kontaktuan jartzen dituztenak. Erakarpen kimiko bidez hurbilarazten dute espermatozoidea eta badirudi haiek direla espermatozoideen artean aukeraketa egiten dutenak ere. Zelula horiek espermatozoidea xurgatu eta obuluan sartzen dute. Ugalketa lagunduan, aldiz, inguruko zelula horiek kendu egiten dira, eta orratz bidez sartzen da espermatozoidea obuluan, alegia, gure iruditeriarekin bat datorren moduan. Alegia, kontakizun zientifiko bat sortzen dugu zeinetan zelulak aislatuta leudekeen, eta gero teknikak erabiltzen ditugu zelula horiek aislatzeko.

Ez dut esaten ugalketa mota horrek funtzionatzen ez duenik, noski. Horrela hamar milioi pertsona baino gehiago sortu dira, dagoeneko. Diodana da ugalketa lagunduaren bitartez haurrak sorrarazteaz gain, gure kultura eta mundu ikuskera birsortzen eta indartzen ditugula.

Zergatik da interesgarri ugalketa lagunduari buruzko diskurtsoak aztertzea?

Kontua da ugalketa lagunduaren kasuan diskurtsoen eraikuntza oso begi-bistakoa dela eta informazio asko ematen duela. Esaterako, haurdunaldi subrogatuez hitz egitean gurasotasunaren pisu guztia material genetikoan jarriko da: zure haurra



da, zure geneak dituelako. Klinika berberetan, ordea, obuluen donazio bidezko ugalketen kasuan, enfasia haurdunaldian jarriko da: bederatzi hilabete horiek dira egiazki bat ama bihurtzen dutenak, hor eraikitzen baita haurraren eta amaren arteko lotura. Paradoxa hauek ikusgarri egiten dute ugalketa ulertzeko gure modua nola negoziatzen den kulturalaki.

Zuk, bereziki, obuluen donazio bidezko ugalketa lagundua aztertu duzu. Azken urteetan obuluen dohaintzaren inguruan negozio bat garatu dela diozu.

Azken urteetan, lagundutako ugalketa bera asko hazi da, eta material biologikoaren inguruan merkatu-hobi berriak sortu dira. Espainiako Estatuan jaiotzen den haurren %8 da ugalketa lagundu bidez jaioa, eta in vitro tekniken bidez jaiotakoen artean lautik bat dohaintzan emandako obulu bidez sortu da. Baina kontua haratago doa. Espainiako Estatuak obuluen donazio sistema askoz merkantilizatuagoa du inguruko estatuak baino; anonimoa da, eta konpentsazio ekonomikoa eskaintzen zaio emaileari. Estatu batzuetan, Alemania kasu, debekatua dago. Beste batzuetan, Portugalen edo Erresuma Batuan, adibidez, donazioa ez da anonimoa. Herrialde batzuek ez dute konpentsazio ekonomikorik eskaintzen, Frantzia, esaterako, edo konpentsazio ekonomikoa ez da hain erakargarria, edo jendea ez da konpentsazioak merezi izateko bezain prekarioa. Espainian, berriz, baldintza guztiak betetzen dira klinika pribatuek negozioa egin dezaten, estatuko bertako kontsumoaz, zein ugalketa-turismoaz.

Zer eskaintzen da, zehazki, klinika pribatu hauetan?

Haur osasuntsu eta *binkulatuak* eskaintzen dira. Horretarako enbrioien hautaketa egiten da, noski, test genetikoaren bidez. Eta baztertzen direnak ez dira soilik aurrera egingo ez luketen enbrioia; baztertu egiten dira gure mundu ikuskeran akastunak diren enbrioia ere (Down sindromedunak, edo gorputz intersexualak sortuko dituztela dakigunak, esaterako).

Binkulatua izateari dagokionez, berriz, antza edukitzeaz ari gara. Emaileen analisi genetikoetan oinarrituz, eta esperma eta obuluen koherentzia azterketak eginez, besteak beste, bilatzen dena da haurrak biologikoa ez den gurasoaren antza izatea. Bai bikote heteroetan, bai ama bakarren kasuan, eta baita ama lesbianen kasuan ere. Hala, “geneak nahastu izanaren” ilusio optikoa bilatu nahi da, familia heteronormatibo perfektuaren ideiatik ahalbait hurbilen egon dadin familia hartzailea. Eta ez da soilik antza bilatzen dena. Izan ere, emaileak hartzaileak baino normatiboagoak izan daitezen bilatzen da. Ederragoak,



argalagoak, ez baxuegiak, azal argiagokoak... Honek ez du esan nahi klinika horietara jotzen duen jendeak hala eskatzen duenik. Ez da horrela. Are, badago ideia horrekin deseroso sentitzen den jendea ere, noski. Kontua da hau negozio modeloaren parte dela; eta jendearen ugalketa desioak betetzeko tratamenduak testuinguru horretan eskaintzen direla.

Eta obuluak, nork ematen dizkio nori?

Obuluen dohaintzaren bidez, ugalketarako gaitasuna gorputz gazteago batetik gorputz helduago batera igarotzen da, maizenik. Baina, baita gorputz prekarioago batetik posizio ekonomiko egonkorragoa duen gorputz batera ere. Horrek ez du esan nahi hartzaile guztiak klase altukoak direnik. Prekarioek ere izan dezakete jende prekarioagoa azpian.

Klinikek askotan emaileak unibertsitate-ikasleak izan ohi direla adierazten dute, baina maiz ez da horrela izaten. Asko emakume prekarioak dira. Eta asko migratzaileak, nahiz eta azken krisi honekin badirudien proportzioa beherantz doala. Koordinazio fenotipikorako, begi, ile eta azal kolore jakinak bilatzen dira, noski. Eta, esaterako, mediterraneo kostaldean, Europa ekialdeko migratzaileen obuluak nahi izaten dituzte gehienbat.

Zenbat ordaintzen dute, bada, obuluen dohaintza?

Mila bat euro inguru izan ohi da. Aurretiaz egin beharreko hormonatze prozesua eta tratamendua bera kontuan hartuta, oso gutxi da. Kontua da altruismoaren karta jokatzeko dutela klinikek. “Egin ezazu haurrik eduki ezin duten emakumeengatik”. Konpentsazioaren ereduak altruismoa ulertzeko modu bat kapitalizatzen du. Generoarekin oso lotutako altruismoaren ideia bat, hain zuzen. Gizonekin ez du funtzionatzen.

Zintzoagoak lirateke harreman batean oinarritutako dohaintzak, anonimotasunik gabeak (zuk zure ahizpari, koinatari edo lagun bati obulua eman nahi badiozu, aurrera). Hala egiten da hezur-muinaren transplantearekin. Zergatik ez obuluekin?

Bestela, lan esparruan kokatuko nuke kontua. Negoziazio kolektiborako aukerarekin, beste edozein lanetan bezalaxe, arriskuen ebaluazioarekin, eta abar. Aukera horrek, gutxienez, agerian utziko luke material biologiko horren merkantilizazioa. Konpentsazio-sistema honek obuluak eskuratzeko adina diru



eskaintzen du, baina material biologikoaren salerosketa merkatu bat dagoela baieztatzeko bezain gutxi. Eta bidean, alde batetik, naturalizatu egiten du emakumeek gauzak maitasunagatik egiten dituztela dioen diskurtso hori, eta bestetik, klinika pribatuak aberasten dira, haien kontura. Konpentsazioak izugarri apalak dira obulu horiek duten balio ekonomikoarekin alderatuta.

Merkatuen desioaz gain, badago, nonbait, ugalketarako laguntza eskaera handi bat ere, ezta? Zer dela eta ematen ari da hedatze hau?

Ugalketaren inguruan injustizia eta ezinegon ugari dago, eta horri aurre egin behar diogu, nolabait. Ugalketaren inguruko krisi batean gaude, eta ez ugalkortasun tasak apalak direlako.

Ugalketaren inguruko krisia gertatzen ari da zaintzaren eta haurren hazkuntzaren inguruko krisi batean ere bagaudelako. Alde batetik aldaketa soziologiko handiak eman dira azken hamarkadetan, eta emakumeak merkatu produktiboan sartu dira. Beste aldetik, ordea, ez estatuek, ez sektore pribatuak eta ez gizonek ez dute haien gain hartu zaintza eta hazkuntza lanen ardura.

70eko hamarkadan in vitro ernalkuntza posible zela frogatu zenean, ugalkortasun arazoak konpontzeko ikusi zen baliagarri. Gaur egun batez ere gure bizimoduen toxikotasunari eta ugalketa adinaren gorakadari lotutako arrazoiengatik jotzen da teknika honetara. Nik ez diot ugalketa lagundua beharrezkoa izan ez daitekeenik, noski. Ez dago horretara jotzen duten pertsonak zertan epaitu. Baina, uste dut haurrak modu duinean hazi ahal izateko, eskatu behar dugula lan esparrua berregituratu eta zaintza sistemak egituratu daitezela. Eta ez ezinbestean ezinegon indibidualak klinika pribatuetan konpondu behar izatea.


Aldi berean, krisi honek aukerak ere zabaltzen ditu. Nazioarteko merkatua zabu-zabuka dabil, orain arau bat hemen, orain beste arau bat han, etengabe zezelka. Antolatzen bagara, une egokia izan liteke egoki ikusten dugun norabidean esku hartzeko.

Miren Artetxek Sara Lafuenterik egindako elkarrizketa, Argia aldizkarian 2001eko urtarilaren 17an argitaratua.



AHOA(K) BETE

Nahia eta Laura Galar Perez de Onraitia



Plazer gorenena ahoarekin bermatzen da.

Mihiak badaki irudimenera etortzen den gauza orok zelako sentsazioa duen.
Zaporeak gehituz gero sekulako zirrararen murgiltzen garelarik.

Izerdia, irrika, jolasa.

Eta hala ere, kendu egin zigutelako, gaur beldurrari aurre eginez dihardugu.

Nire eskuetan arreta jarritz, aspaldi agurtu nituen masa berrietara heldu naiz.

Orain gehiago dago.

Haragi gehiago, lorza gehiago, sentsazio gehiago.

Plazerra ni gurtzera etorri da, nahiz eta ahoak zугan eduki begirada.

Ni agurtzera, igurtzera, urtzera.



Dastatu nahi dut.

Zaitut, barkatu.



Eta gure ahoek zirrara guzti hori bizi dutenean, nik nire burua ikusi dut berriro ere. Baina oraingoan berdin zait. Plazerak pentsatzea galarazten dit eta nik eskerrak eman nahi dizkiot.

Begirada arrotzek ezkutatu dezaketen mespretxuarekin akabatu egiten du.

Plazerak gela osoa hartu du, gureganatzeko bueltatu da. Zapore guztiak dastatzeko eta ahoa, gorputzak, hatzamarra dantzan jartzeko.

Plazerrak berarentzat nahi du momentua, *diba* bat da, eta inork ez du ezta bere itzala izateko boterea.

Edo ausardia.

Zaporeak dastatzen ditut bien bitartean, gazi-gozoek Greziako *aisthetikös* batean murgiltzen naute, polita eta gozamena grina bakar batean nahastuz.

Gehiago izatearen atzetik atzazkalek minarekin erlazionatzen den hori disfrute huts batean bilakatzen dute. Basatiki sen oso bat irauli dut gorputz horretara.



Gorputza eta ahoa bete zaizkit, bete ditut. Zaporez, kolorez, formaz bete ditut. Gozamenaren jaialdian nire lekua betetzeko heldu naiz, eta geratuko naiz. Geratuko gara.

Zaporeak dastatzen ditut bien bitartean, gazi·gozoek greziako *aisthetikös* batean murgiltzen naute, polita eta gozarena grina bakar batean nahastuz.

Gehiago izatearen atzetik atzazkalek minarekin erlazionatzen den hori disfrute huts batean bilakatzen dute. Basatiki sen oso bat irauli dut gorputz horretara.

Gorputza eta ahoa bete zaizkit, bete ditut. Zaporez, kolorez, formaz bete ditut. Gozamenaren jaialdian nire lekua betetzeko heldu naiz, eta geratuko naiz. Geratuko gara.





TRANS ESPERIENTZIATIK IDENTITATEAK BERPENTSATZEN

Miquel Missé



Hitzaldia Miquel Misséren eskutik, “La revolució dels gèneres” zikloaren barruan, Bartzelonako Beckett aretoan, 2017ko apirilean.

Aurkezpen honek gogoeta kritikoa egiten du trans irudikapenei buruzko kontakizun mediatiko eta kulturei buruz, eta gure iruditeria sozialen eraldatzea proposatzen duten bestelako hurbilketak planteatzen ditu.

Hizkuntza, katalanez.

Egilearen inguruan: <http://www.miguelmisse.com/>



LANA, KAPITALA

Jean-Luc Nancy



Non daude gorputzak, lehenik? Gorputzak lehenik eta behin lanean daude. Gorputzak, lehenik eta behin, lanean ahaleginean daude. Gorputzak, lehenik eta behin, lanean bidean daude, lanean bueltan, atsedenean zain, hura hartuz eta berehala utziz, eta, lanean, merkantziekin bat eginez, bere horretan merkantzia, lan-indarra, kapital metaezina, salgarria, metatutako kapitalaren merkatuan agortu daitekeena, metatzailea. Técnica sortzaileak fabrika-, tailer-, obra- eta bulego-gorputzak sortzen ditu, bai eta beste atal batzuk ere, irudi eta mugimenduen bidez osatzen dituztenak sistema osoarekin, piezak, palanka, enbrage, paketatze, eskotadura, kapsulatze, fresatze, desakoplamendu, estanpatze, zerbitzatutako sistema, zortasun sistemiko, biltegi, manutentzio, deskarga, desegite, kontrol, garraio, pneumatiko, olio, diodo, kardane, urkil, biela, zirkuitu, diskete, telekopia, errotuladore, temperatura altu, lainoztatze, zulaketa, kableatu eta kanalizazioekin, soilik baliokide monetariora kanalizatutako gorputzak, hor biltzen den kapitalaren plusbaliara soilik.

Batez ere, ez saiatu diskurtso hau arkaikoa dela esaten.



Kapitalak esan nahi du: gorputz trafikatu, garraiatu, desplazatu, birjarria, ordezkatu, postan eta jarreran, lukurreriaraino, langabeziaraino, goseraingo, gorputz bengaliarra Tokioko motor baten gainean tolestuta, gorputz turkiarra Berlingo zanga batean, gorputz beltza pakete zuriz beteta Suresnesen edo San Frantziskon. Beraz, kapitalak hau ere esan nahi du: gorputzen gehiegizko esanahiaren sistema. Ezer ez da klase eta esfortzu eta klase borroka baino adierazgarriagoa. Ezerk ez dio semiologiari ihes egiten indarrek pairatutako ahaleginek baino gutxiago, muskuluen, hezurren, nerbioen bihurdurak baino gutxiago. Begiratu eskuei, kailuei, krakari, begiratu birikei, bizkarrezurrei. Soldatapeko gorputz zikina, zikinkeria eta soldata, esanahiz harilkatutako eraztun bat bezala. Beste guztia literatura da.

Filosofiaren amaiera, eta batez ere gorputzaren filosofia guztiarena, lanaren filosofia guztiarena bezala. Gorputzak askatzea baizik, berriro irekitzea kapitalak metatzen duen espazioa, denbora gero eta estuagoz, zorrotzagoz, karrankariagoz kargatzen duena. *Made in time* gorputzak. Sorkuntza bera eternala da: eternitatea hedadura da, itsasoa eguzkiari lotua, espaziamentua sortutako gorputzen erresistentzia eta matxinada gisa.

Corpus liburutik hartutako zatia.



IDIOTER

Alma Söderberg



Idioter Alma Söderbergekin eta Hendrik Willekensekin elkarrekin egindako lana da. Ahotsa gorputzaren osagai gisa lantzen da koreografia honetan eta Alma Söderbergen lanean etengabeko presentzia duen erritmoaren inguruko hausnarketa proposatzen da.

2014ko otsailean, Amsterdameko *Veem House for Performance* zentroan izandako emanaldiaren ikusentzunezkoa ekarri dugu ale honetara.



KOLABORATZAILEAK



BLANCA PUJALS arkitektoa da, espazioaren inguruan garatzen du bere ikerketa eta horrekin batera, idazle kritikoa da. Bere diziplinarteko praktikak ikerketa espaziala eta analisi kritikoa uztartzen ditu gorputzen eta lurraldeen gaineko botere-geografien inguruko gaiak eta azpiegitura tekniko zientifiko garaikideen konfigurazio geopolitiko eta ontoepistemologikoak jorratzen ditu.



ALBERT GALVANY txinera klasikoko eta antzinako Txinako historia intelektualeko espezialista da. EHuko Filosofia Sailean irakaslea izan aurretik ikerlari gisa aritu da hainbat erakunde akademikoetan (École Pratique des Hautes Études, Friedrich-Alexander Universität, University of Cambridge, Universitat Pompeu Fabra). Nazioarteko aldizkarietan argitaratutako hainbat artikuluren egilea da, obra kolektiboen koordinatzailea eta testu klasikoan eta saiakera sinologiko garaikideen itzultzailea.



NEREA ARRUTI Londresko Goldsmiths Colligen eta Eskoziako Aberdeeneko unibertsitateetan irakasle titularra izan da. Egun Euskal Herriko Unibertsitatean da irakasle. Mundu akademikoan Julio Cortázarri buruzko doktore tesia izan zen abiapuntu, Londresko King's Colligen paratua. Ikerketa lanetan artea eta literatura uztartzea izan du helburu. Azken urteotan irudimena, kartografia eta poesia ikertzen aritu da, eta horrekin loturik "Gorputza, egiletasuna eta generoa euskal kultur sorkuntzan" ikerketa egitasmoan partealde da.



IÑIGO MARTÍNEZ PEÑA Filosofian lizentziaduna da EHUn. Batxilergoko filosofia eta psikologia irakaslea da Lotuko Lauro ikastolan. Filosofia eta pentsamendu kritikoa gizarteratzeko lanean dabilen Agora filosofia elkartearen kidea da. Filosofiaren defentsak (Erein, 2017) liburuaren koordinatzailea eta Mandamentu Hipermodernoa (Elkar, 2021) liburuaren idazlea. 2018-2019 bitartean Euskadi Irratiko Hiri Gorrian saioko kolaboratzailea izan zen. Egun, Berria egunkarian eta Jakin aldizkarian iritzigilea da eta formakuntza psikoanalitikoan parte-hartzen du Bilboko Antena Klinikokoan.




SARA LAFUENTE doktore ondoko ikerlaria da Frankfurteko Goethe Unibertsitatean. Soziologia ikasi zuen Madrilgo Complutensean, eta ondoren biomedikuntza eta biozientzien inguruko masterra London School of Economics-en. Lagundutako ugalketaren inguruko diskurtso zientifikoak aztertu ditu, queer teoria, epistemologia feministak eta zientziaren azterketa sozialak lotzen dituen begirada kritiko feministatik.



NAHIA ETA LAURA GALAR Laura Galar Perez de Onraitak (hezitzailea eta militante lodi transfeminista) eta Nahia (enakume lodien gorputzak artean aztertzen duen doktoregaia eta militante lodi transfeminista) loditasunari leku emateko militantzen dute Ezin Kabitun. Oraingo honetan, desira lodia erdigunera ekarritz.



MIQUEL MISSE soziologoa eta trans aktibista da. Trans kultura kritikoa sustatzea eta genero-espientzia eraldatzailak dituzten erreferenteak zabaltzea dira bere lanaren ardatza. Horretarako, esparru ezberdinetan garatzen du bere lana: ikerketa, pedagogia, kultura eta pentsamendua harremanetan jarriko dituzten proiektuen sustapenean dihardu. Idazlea da eta hainbat liburu publikatu ditu.



JEAN-LUC NANCY filosofo frantsesa izan zen. Frantzia garaikideko pentsalari garrantzitsuenetako bat izan zen, filosofiako irakasle emeritua Estraburgoko Marc Bloch Unibertsitatean eta Berkeley eta Berlineko unibertsitateetan kolaboratzaile bezala aritua. 2021ean, Unibertsitate Nazionalako Honoris Causa doktore-titulua jaso zuen bere merituko akademikoengatik.



ALMA SODERBERG koreografo eta interpretea da. Ahotsa eta gorputza erabiltzen ditu espazioarekin harremanetan jartzeko. Bere ikerketa lanak aztertzen du gorputzak aditzeko duen ahalmena, hartara, entzumena zein begiradaren arteko harremana oso presente dago bere lanean. Hendrik Willekens soinu-artistarekin kolaboratzen du bere lan gehienetan. Thalia saria irabazi du eta Cullberg beka eman diote.

Irudiak: Paula Rego, Lander Garro, Michael Wolf, Ernst Ludwig Kirchner, Rineke Dijkstra, Helena Goñi eta Han Dinastia.

Zigi Zaga



COOR
PUS